

**2014KO EKAINAREN 19AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hemeretzia.

**HILABETEA:** Ekaina.

**URTEA:** Bi mila eta hamalau.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:**

- M<sup>a</sup> Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M<sup>a</sup> Luisa Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Leire Artola Ugalde
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

**ETORRI GABEA:** Encarna Arrieta Telleria

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

**1.- AURREKO AKTAK.** 2014ko apirilaren 3 eta 28ko akten onespena.

2014ko apirilaren 3 eta 28ko akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira beraiekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- KREDITU ALDAKETA.** Kreditu aldaketa gehikuntza modalitatean (zazpigarrena).

Une honetan, Josi Insausti, H1eko zinegotzia batzarraldira sartu da.

Alkate jaunak (BILDU), ezagutzera eman du, 2014ko ekainaren 16ko Hazienda Batzordeko proposamena:

**GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA**

“Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1.5000.600.223.10.01.2013	<b>Esteban Lasa eta Mariaratseko luiziak</b> <b>Argiteri publikoa: ekipamendua</b> <b>Peategi kaleko trenbide gaineko zubia</b>	59.195,12	13.200,00	72.395,12
1.9000.601.433.10.02.2013		8.517,08	2.206,00	10.723,08
1.9000.601.511.10.04		0,00	30.735,00	30.735,00
<b>GUZTIRA</b>		67.712,20	46.141,00	113.853,20

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak
1.9000.601.434.10.03	S. Martin plaza, Ezkiaga frontoiko bar	2.206,00
1.9000.623.444.10.03		5.000,00

1.9000.601.434.10.01	Naf. Etorb. Bidegorria seinaliz.	7.000,00
1.9000.623.449.10.04	Azp. eta urb.: Skate parkea	3.000,00
870.01	Tresnak eta erremintak: Zerbitzuak	28.935,00
	Kreditu gehig. Finantz. Gerakina	
<b>GASTUEN GEHIKUNTZAK</b>		46.141,00

Alkate jaunak adierazi du Skate parketik hartu behar zen dirua gerakinetik hartuko dela, parke horretan egin beharreko obra pentsatzen zena baino handiagoa izango delako.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

1.- 7. Kreditu gehikuntzen bidez 46.141,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

**3.- MUSIKA ESKOLA ETA EUSKALTEGIKO TASAK.** 2014-2015 ikasturteko tasak.

Alkate jaunak, 2014ko ekainaren 16ko proposamenaren berri eman du:

**“Beasaingo Loinatz Musika Eskolan, Euskaltegian eta Ludotekan 2014-2015 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.**

Hazienda Batzordeak 2014ko ekainaren 16an egindako bileran, 2014-2015 ikasturtean Musika Eskola, Euskalategi eta Ludotekako zerbitzuengatik aplikagarri izango diren tarifen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

**BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA  
2014-2015 IKASTURTEA**

	<u>Urteko kuota/</u>
MUSIKA TAILERRA	200,00 €
HASTAPENA	255,00 €
INSTRUM. + M. LENGOAIA II. MAILA	680,00 €
INSTRUM. + GAI TEORIKOA III. MAILA	720,00 €
M. L. + PANDERO EDO + KANT TALD	505,00 €
M. LENGOAIA	255,00 €
GAI TEORIKOAK	255,00 €
INFORMATIKA	255,00 €
INSTRUMENTUA EDO KANTUA II. MAILA	510,00 €
INSTRUMENTUA EDO KANTUA III. MAILA	535,00 €
TRIKITIXA (II. MAILA)	440,00 €
TRIKITIXA (III. MAILA)	460,00 €
PANDEROA	315,00 €
KANTUA TALDEAN	230,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA	785,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA + GAI TEORIKOA	945,00 €
IZENEMATEA 15-16	42,00 €
MATERIALA	13,50 €

- Familia partaide kopuruarengatiko dirulaguntza:

1. partaideak: kuota osoak

2. partaideak: kuota osoak

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.

- Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.

**BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA  
2014-2015 IKASTURTEA**

<b>Ikastaroak</b>	<b>Ordu kop.</b>	<b>Prezioa materiala barne</b>
Astean 10 orduko ikast.	320	434 €
Astean 8 orduko ikast.	281	385€
Azterketei begira osatutako taldeak	120	179€
Etorkinentzako AISA ikastaroak	60	34€
Autoikaskuntza ikastaroak tutorearekin 2014/10/01-2015/06/18	192	430€
Udako ikastaroa 2014/06/26-2015/07/23	80	115€
3. mailako ikastaroa 2014/10/01 – 2015/06/18	165	500€

2014/2015 ikasturtean, orduko 1,28 € kobratuko da ikastaro orokorretan.

4. Mailako ikastaroetan, orduko 3 € kobratuko da.

AISA ikastaroetan kopuru finkoa kobratzen da.

Materiala 25 €. Udako ikastaroan, 12,5 €.

Ikasleek matrikularen kopuruaren erdia ikastaroa hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordaindu beharko dute. Gainerakoa, hurrengo bi hilabeteetako lehenengo astean egin beharko dute, edo, hala eskatuz gero, hileko 8 kuotatan banatuta.

Udako ikastaroetan, ikastaroa hasi eta lehenengo 7 egunetan ordaindu beharko du.

Ikasturte amaierako beka eskatzeko eskubidea izango dute Beasainen erroldatuta dauden ikasleek eta diru-laguntza horiek emateko, Udal Ordenantzan jasotakoa aplikatuko da.

Ikasleak HABEtik ere jaso dezake diru-laguntzarik. Horretarako, euskara mailak egiaztatzeko HABEk deituko dituen azterketak gainditu beharko ditu.

### **Udal ludoteketan zerbitzua emateagatiko tarifak**

#### **2014-2015 IKASTURTEA**

Zerbitzua irailetik ekainera emango da eta dagokion tarifa 63 eurokoa izango da.

2015eko urtarrilean matrikulaldia irekiko balitz, zerbitzuaren erabiltzaile berriek ordaindu beharreko tarifa 31,5 eurokoa izango da eta zerbitzua otsailetik aurrera emango da.

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak sustatutako eskuhartze programetako partaide diren adin txikiko eta gazteei ludotekako tarifa subentzionatuko zaie.”

Alkate jaunak komentatu du Musika Eskolan proposatzen dena KPI + 1eko igoera dela, ludotekan ematen den bezalaxe eta aldiz euskaltegian, igoerarik ez ematea proposatzen da. Esan, musika eskolako finantziario urtero bezala hiru zatitan banatzen dela (Eusko Jaurlaritza, Udala eta erabiltzaileak), baina horretara ez garela oraindik iritsi. Euskaltegiko igoera ez da ematen iaz HABEko dirulaguntza jeitsi bazen, aurten dirulaguntza hori igo delako eta uste dugulako euskera ikasteko Udalaren aldetik esfortzu bat egin daitekeelako (azken finean KPI igotzea ez da igoera handia. Askotan zerbait sinbolikoa izan daiteke). Gure ustez eta lehentasuna izateak euskera ikasteak, igoerarik ez ematea proposatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “en contra de la subida.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk, udal euskaltegikoa ondo ikusten dugu, baina musika eskolarako proposatzen denari (KPI+1) buruz esan, bere garaian ere, tasak onartu zirenean gu abstenitu egin ginela eta orain ere, abstenitu egingo gara.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU, ARALAR)  
Aurkakoa botoak: 1 (PP)  
Abstentzioak: 8 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1)

Aldeko botoen kopurua aurkakoa baino handiagoa denez, proposamena onartu egin da.

#### **4.- GURUTZE GORRIA UDAL INTERESEKOA IZATEAREN AITORPENA.**

Alkate jaunak, 2014ko ekainaren 16ko proposamenaren berri eman du:

“Gurutze Gorria-Cruz Roja” (I.F.K.:Q2866001G) herri onurakoa izendatzea.

#### **AURREKARIAK**

1.- Gurutze Gorriak 2013ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion likidazioa jaso ondoren, zerga horretatik salbuetsita geratzeko eskaria aurkeztu du Udalean.

2.- 2012 ekitaldira arte, erakunde erreklamatzailerak aipatutako zergatik salbuetsita zegoen, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko 3/2004 Foru Arauaren 17. artikulua xedatutakoaren babespean.

Ondoren, Udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituen 4/2012 Foru Arauak aipatutako 17. artikulua indargabetu du, eta beraz, salbuespena kendurik, erakundea zergapetuta geratu da 2013 ekitaldian.

3.- Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.h) artikulua, salbuespenarako bidea jartzen du Elkarteen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarten alde, hala eskatuz gero, baldin eta udalarekin batera lankidetzak jarduerak burutzeagatik bertako órgano eskudunak herri onurakoak izendatzen baditu.

Beraz, Gurutze Gorriak aurkeztutako eskaria ikusirik eta horretarako eskatutako baldintzak betetzen direnez (2013-12-20ko Gobernu Batzordeak onartutako hitzarmena), Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

Lehenik.- Gurutze Gorria-Cruz Roja” elkarteak herri onurakoa izendatzea Udalarekin lankidetzan jarduerak burutzeagatik, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.h) artikuluan xedatutako ondorioetarako, 2013ko ekitaldiari dagokion likidazioarekiko efektuekin.

Bigarren.- Gipuzkoako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ados gaude eta orain esan behar dudanak iruditu daiteke zer ikusirik ez duela, baina niretzat elkarte hori herriko interesa denaren aitortzaren truke ondo egongo litzateke, Gurutze Gorriak egoitza berrian jarri dituen ikurretan hizkuntza txertatzea, gutxienez %50ean. Beraiek ere hizkuntz politika izango dute, baina neri iruditzen zait gaur gurutze gorri batekin, ezer ez jarri gabe, pauso bat ematea izango litzatekeela. Dena dela gurutze gorriaren ikur azpian dagoen guztia gastelaniaz dago eta ez litzateke gaizki egongo, honelakoak aprobeztatzea beraiek ere kontutan hartu dezaten.”

Alkate jaunak (BILDU): “Hitzarmenean ere horrela dago eta horren bila goaz, hau da, publikatzen diren gauzetan euskera izatea garrantzitsuena edota gutxienez bi hizkuntzetan jartzea, baina euskera azpimarratuta.”

Bozketa eginda, proposamena aho batez onartu da.

**5.- ACABE ELKARTEAREKIKO ATXIKIPENA.** Eusko Jaurlaritzatik herri onurako aitorpena lortu dezan.

Alkate jaunak, gizarte-ongizate batzordearen proposamenaren berri eman du:

#### **“AURREKARIAK**

**I.-** 2014ko martxoaren 5ean, ACABE Elkartearen eskaera jaso zen, Beasaingo Udalaren babesa eskatuz Eusko Jaurlaritzatik Herri-Onurako aitorpena lortu ahal izateko.

**II.-** ACABE, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusian inskribatuta dagoen elkarte da. (AS/G/048551/1994 erregistro zenbakia).

Bere estatutoen arabera elkarte honen helburuak hauek dira:

-Anorexia eta bulimiaren aurka borrokatu.

-Gizarteari, Osasun zerbitzuetako autoritateei, gazteei eta gizarte komunikabideei sentsibilizatu, gazteek eta batez ere, emakumeek jasaten dituzten arrisku edo kalte larriak, elikadura jokaeren nahasketen ondorioz.(anorexia, bulimia)

**III.-**Herri-onurakotzat aitortu diren elkarteek eskubide hauek izango dituzte (7/2007 LEGEA, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkartei buruzkoa):

-Bere agiri guztietan “Eusko Jaurlaritzak herri-onurakotzat aitortua” aipamena erabiltzeko eskubidea.



-Une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen eskubide, onura eta salbuespenenez-ekonomikoak, administratiboak, zergen arlokoak eta sozialak-gozatzeko eskubidea.

-Doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea, berariazko legediak ezartzen dituen baldintzetan.

-Entzunak izateko eskubidea, eragindako herritarrak biltzen edo ordezkatzeko dituzten neurrian, bai elkarteek xedeei lotuta zuzena duten izaera orokorreko xedapenak prestatzerakoan, bai elkarteentzat garrantzi berezia duten planak eta programak prestatzerakoan, betiere elkartei entzuteko administrazio eskudunak ezartzen duen prozeduraren arabera.

#### IV.- Kontutan izanik:

- Erakunde honek 20 urteko ibilbidean egin duen lana; besteak beste, anorexia, bulimia eta elikadura jokaera nahastea jasaten duten kalteak eta hauen familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen saiatuz.
- Lurralde osoan gaixotasunaren berri ematea eta gipuzkoarrak sentsibilizatzea oso garrantzitsua dela gaixotasunari modu eraginkorrean aurre egiteko eta bere aurka borrokatzeko.

Gizarte-Ongizate Batzordeak, Udalbatza Osoari, egiten dio ondorengo

### ERABAKI-PROPOSAMENA

ACABE elkarteak Eusko Jaurlaritzatik Herri-onurako aitorpena lortu, dezan Beasaingo Udalaren atxikipena adieraztea orain arte anorexia eta bulimia gaixotasunekiko erakutsitako ardura eta dedikazioagatik.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, proposamena aho batez onartu da.

#### **6.- GIZARTE-ONGIZATEKO HITZARMENAK:**

- Foru Aldundiarekin hitzarmena, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

Alkate jaunak, 2014-06-05ean gizarte-ongizate batzordearen proposamenaren berri eman du, hau da:

“Mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, itsatsirik doan hitzarmena onartzea eta Alkateari baimena ematea sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzirik hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gure jarrera hitzarmenarekiko abstentzioarena izango da. Bi urteko hitzarmena da planteatzen dena eta hasiera bat suposatzen du, Udalak bere 100% bere gain hartzeko etxez etxeko laguntza. Beste herri batzuetan hirugarren adineko egoitzak Foru Aldundiak hartzen ditu bere gain. Guk hamabost plaza hutsik hor ditugu, Foru Aldundiak bere gain hartu ez dituelako eta ez du ikusten zeien truke izan behar duen Udalak %100 bere gain hartzeko aldaketa hori. Pentsatzen dugu Beasainentzat diru-kopurua altua izango dela. Egia da Foru Aldundiak esaten duela sinatu ez ezker, ez duela inolako dirulaguntzarik emango eta horregatik gu abstenitu egiten gara. Guretzat lantzeko gaia da.”

Idoia Baztarrika andreak (BILDU): “Foru Aldundia aipatzen duzu, baina 2008. urtean Eusko Legebiltzarrean onartutako lege baten ondorioa da. Ulertzen dugu, gaia eztabaidatu behar dela, baina momentu honetan lege horretan aipatzen diren eskumen batzuen inguruan ari gara. Lege hori 2013an martxan jarri zen eta 2016. urte arte bitarteko finantziazioa markatzen du. Hitzarmena garrantzitsua da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bai, horregatik guk ere ez dugu aurka bozkatzeko. Si va a ser una competencia nuestra, tendremos que saber cómo vamos a asumir ese 100%.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (EAJ, H1, PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin hitzarmen honen edukia eta hitzarmen hori sinatzeko Alkate jaunari baimena ematea, onartu da:

**“GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.**

**ELKARTU DIRA**

Alde batetik,

ANDER RODRIGUEZ LEJARZA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua, egintza honetarako Aldundiaren legezko ordezkari gisa ari dena, Diputatuen Kontseiluak 2014ko martxoaren 25eko bileran emaniko berariazko baimenarekin.

Eta bestetik,

KOLDO AGIRRE MUJIKA jauna, Beasiango go Udalaren legezko ordezkari gisa ari dena, Udal Batzarrak 2014ko ekainaren 19ko bileran emaniko berariazko baimenarekin.

## AZALTZEN DUTE

**I.-** Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko gizarte zerbitzuen sistema integratu bat antolatzen eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan herritar guztiei zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea bermatzeko.

**II.-** Lege horren 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen egitekoa da.

**III.** Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu, ez baita gauzatu legearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aurreikusitako finantza doiketa, zeinaren helburua baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa hornitu ahal izateko finantzaketa nahikoa bermatzea.

**IV.-** Bi administrazioek, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetearren, egoki ikusten dute beste lankidetzat hitzarmen bat egitea 2005ean sinatu zen eta gero 2013ko abenduaren 31 arte luzatu zen lankidetzat hitzarmenean jasotako zenbait alderdi eguneratzeko, besteak beste, hitzarmenaren xedea, zerbitzuaren estaldura-helburuak eta tarifak, eta zerbitzuaren finantzaketa sistema. Horretarako, beheko klausula hauek ezartzen dituzte.

**V.-** Bi administrazioek uste dutela hitzarmenaren estipulazioak ez direla aldatu behar 2014. eta 2015. urteetan zehar udalei Gipuzkoako Aldundiak finantziario sistema beteko duela bermatzeko.

Hori guztia ondorengo klausulei jarraituz,

## KLAUSULAK

### **LEHENA.- Xedea**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta BEASAINgo Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da udalean mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak zehaztea.

### **BIGARRENA.- Zerbitzu estaldura eta baimendutako ordu kopurua.**

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren gehieneko ordu kopurua izango da Gizarte Politikako Departamentuak udal horretarako 2012an baimendutakoa, hau da, 18.914 ordu.

Hitzarmen honetako seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, baimendutako gehieneko ordu kopuruaren % 80 15.131 ordu dira.

#### **HIRUGARRENA.- Tarifa/orduak gehienez**

Hau da seigarren klausulak arautzen duen foru finantzaziorako oinarri den mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzuaren gehienezko tarifa orduko:

- Orduko tarifa astegunetan: 18,87 €
- Orduko tarifa igande eta jaiegunetan: 22,66 €

Udalak emandako zerbitzuaren prezio/ordua gehienezko tarifa baino txikiagoa balitz, foru finantzazioa kalkulatzeko, udalak onartutako prezio/orduaren zenbatekoa hartuko litzateke oinarri.

Bi kasuetan, ondorio ekonomikoak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

Gehienezko tarifa horiek urtero eguneratuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko KPlaren igoeraren arabera. Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko lehen hilabetearen barruan jakinaraziko dio Udalari eguneraketa horretatik ateratzen den tarifa.

#### **LAUGARRENA.- Zerbitzua arautzea.**

Udalak etxeko laguntzaren zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak ezartzen duen eskumen banaketara moldatu beharko du; horrek ez du berekin ekarriko zerbitzuari buruzko apartatuek baieztatzen dituen eta baztertzen dituen jarduerak aldatzea, ezta onuradunak, eskuratzeko prozedurak eta erabiltzaileen partaidetza ekonomikoak ere.

#### **BOSGARRENA.- Ordaintzeko prozedura.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du seigarren klausulan ezarritako zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak ezarrita ateratzen den zenbatekoa, Udalak zazpigarren klausulan adierazitako informazioa bidali eta hilabeteko epean.

#### **SEIGARRENA.- Foru finantzaketa.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzuari emango dion finantzaketa zehazteko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

##### **a) Hiruhileko fakturazioa:**

Mendekotasuna duten pertsonen emandako zerbitzu orduen kopurua eta hirugarren klausulan zehaztutako zerbitzuaren tarifa biderkatuta ateratzen den emaitza da.

##### **b) Baterako ordainketa:**

Mendekotasuna duten erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

##### **c) Foru finantzaketaren portzentajea:**

Udalak baimendu diren orduen % 80 burutzen duen arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du:

1.- 3.000 biztanle baino gehiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatuaren arteko aldearen % 85.

2.- 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalei, hiruhileko fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatuaren arteko aldearen % 90.

Klausula honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 2012ko urtarrilaren 1eko errolda hartuko da erreferentzia gisa.

Udalak burututako orduak gainditzen badute baimendutako orduen % 80a, Gipuzkoako Foru Aldundiak % 80 horretatik aurrerako orduei (baimendutako orduen % 100eko mugara arte) dagokien fakturazioaren eta erabiltzaileen ordainketa partekatuaren arteko aldearen % 100 ordainduko du.

### **ZAZPIGARRENA.- Informazio sistema.**

Udalak Foru Aldundiari behar diren datu guztiak eman behar dizkio, gutxienez prezioa eta zerbitzuaren kostua, pertsonako zerbitzu orduak eta erabiltzaileen baterako ordainketa. Helburu hauekin:

1.- Zerbitzuaren likidazioa egin ahal izatea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea, mendekoei eta beste talde batzuei emandako arretari dagokiones eta estali gabeko beharrei dagokienez.

3.- IMSERSOri pertsonen datuak erraztea, SISAADek (Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema) ezarritako baldintzei jarraikiz, araudi honek zehazten duen moduan:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baita Autonomiaren eta mendekotasunaren arretarako sistemaren informazio sistema (EAO 302, 2013/12/18, 1. sek., 100833 or.)
- 2013ko abenduaren 27ko 1051/2013 Foru Dekretua, mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzekoa (EAO 313, 2013/12/31, 1. sek., 107128 or.)

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak Extranet SAD informatika tresna emango du.

Tresna hori gorabehera, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalaren esku bertsio hobe bat jartzen badu, udalak hori erabiliko du.

Informazioa bidaltzeko gehienezko epea hauek izango dira:

a) Lehenengo hiruhilekoa: Apirilaren 30a

- b) Bigarren hiruhilekoa: Uztailaren 31
- c) Hirugarren hiruhilekoa: Urriaren 31
- d) Laugarren hiruhilekoa: urtarrilaren 31

#### ZORTZIGARRENA.- Jarraipen Batzordea

Hitzartutako baldintzen jarraipena egiteko, aldeek adostu dute ordezkari batzorde bat eratzea.

#### BEDERATZIGARRENA.- Amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak

Hitzarmena amaitzeko edo iraungitzeko ondorengo arrazoietakoren bat gertatu behar da:

Bi aldeen artean ados jartzea.

Aldeetako batek hitzarmenari uko egitea, horrelakoetan, beste aldeari jakinarazi beharko dio hitzarmena amaitzeko aurreikusitako data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.

- a) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

#### **HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.**

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eragin ekonomikoa urtarrilaren 1etik duela; eta indarraldia 2014ko abenduaren 31 artekoa izango da. Hitzarmenaren epea amaitzean besterik gabe luzatuzat joko da beste urte natural bateko aldiatarako, eta betiere nahikoa eta egokia den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako.

Eta adierazitako guztia onartzen dutela frogatzeko, biek izenpetzen dute dokumentu hau, bi aletan eta ondorio bakarrarekin, izenburuan adierazitako tokian eta egunean.”

- Sartze-aktiboko hitzarmenaren esparruan LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua eta udal gizarte zerbitzuen arteko elkarlanerako protokoloari atxikitzea.

Alkate jaunak, 2014-06-05ean gizarte-ongizate batzordearen proposamenaren berri eman du, hau da:

“LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua eta udal gizarte zerbitzuen arteko elkarlanerako protokoloari atxikitzea eta Alkatea jaunari baimena ematea, elkarlan protokola sinatzeko.”

Bozketa eginda, proposamena aho batez onartu da.

**7.- EEE-REKIN HITZARMENA:** “Alkateen itunerantz zuzenduz.”

Alkate jaunak, 2014ko maiatzaren 27ko zerbitzu batzordearen proposamenaren berri eman du:

“- Lehenik. EVerekin izenpetzeko “Alkateen itunerantz zuzenduz” hitzarmena bere osatasunean onartzea.

- Bigarren. Hitzarmenaren arduraduna izendatzea Jose Ignacio Aramendi Lazkano jauna, udaleko zerbitzuburua, eta beraz, “udal energia kudeatzaile” gisa arituko da.

- Hirugarren. Ahalmena ematea Alkate Jaunari aipatutako hitzarmena sinatu dezan.”

Jarraian Alkatea jaunak adierazi du, hitzarmena sinatzeak ez duela inolako kosturik suposatzen eta orain arte egiten ari diren ekintzak hitzarmenaren barruan daudela eta bide berdinetik lanean jarraitzea dela helburua. Abantailaren artean %5eko dirulaguntza handiagoa jasotzeko aukera egongo litzateke.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzri hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk ordea ulertzen dugu hitzarmen honek ekintza batzuk markatzen dituela gastuak suposatu dezaketanak. Guk daukagun hiru urteko plana beste era batera egitea agintzen du eta herria beste era batera zati beharra dago. Horrek azterlan bat dakar eta enpresaren bati esan beharko zaio egiteko. Egin gabe ditugun eginkizunak markatzen ditu, beraz betebeharrak batzuk badaude.”

Alkate jaunak (BILDU): “Hau sinatu eta bertan behera utzi beharrean bagaude ez litzateke inolako eragozpenik egongo. Inguruko herriak ere atxikituta daude eta zerbaitegatik izango da. Egia da, egiteko modu batzuk aldatu egin beharko direla, baina hobekuntza izango da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Hobekuntza izango da, baina gastu batzuk ere badaude eta aurrekontuetan aurreikusi egin beharko dira.”

Bozketa eginda, proposamena aho batez onartu da.

Horren ondorioz, ondorengo hitzarmena sinatzea eta Alkate jaunari baimena ematea sinatzeko, aho batez onartu da:

**“BEASAINGO UDALAREN ETA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ALKATEEN ITUNERANTZ ZUZENDUZ EKIMENA GAUZATZEKO**

Beasainen, 2014ko ekainaren .....n

**BILDURIK**

Alde batetik, **Koldo Agirre Mujika jauna**, 72.487.359 F NAN zenbakiduna, **Beasaingo Udaleko** alkatea den aldetik arituz (aurrerantzean “Udala”), eta aitortuak dituen aginpideez baliaturik.

Beste alde batetik, **Pilar Urruticoechea Uriarte andrea**, 14.946.029-P NAN zenbakiduna, **ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN** izenean eta bera ordezkatzuz (aurrerantzean “EEE”), Q5150001E IFK duena, Erakundearen zuzendari kontseilari nagusia den aldetik, zeinek helbidea hauxe baitu: Bilbon 48011, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua, aitortuak dituen aginpideez baliaturik.

Bi aldeek, ordezkatzuten duten erakundeen izenean, aitortzen diote elkarri lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzeko eskumena eta gaitasuna.

### **HAUXE ADIERAZTEN DUTE**

- I. EEEK, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren menpekora den zuzenbide pribatuko erakunde publikoa denak, honako zeregin hauek gauzatzen diharduela: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzen, energia baliabide berriztagarrien erabilera bultzatzen eta energia azpiegiturak garatzen.
- II. Badela “Covenant of Mayors” edo “Alkateen Ituna” (aurrerantzean ITUNA) deritzon ekimen europarra, Europar Batzordeak abiarazitakoa, honako helburu hau duena: ITUNA sinatzen duten udalek Europar Batasunaren helburua gainditzea, CO<sub>2</sub> emisioak %20 murrizteari dagokionez, 2020 urterako, energiaren aurrezpena %20 areagotuz eta energia iturri berriztagarrien erabilera %20 gehituz, udalerriaren azken energia kontsumoaren aldean.
- III. ITUNA izenpetzen duten udalen betebeharra, besteak beste, hauxe dela: Energia Iraunkorraren Aldeko Ekintza Plan bat aurkeztea (aurrerantzean PAES) Europar Batzordearen aurrean, urtebeteko (1) epean, ITUNA izenpetzen duten egunetik kontaktzen hasita.

Aipatutako PAES dokumentuan, 2020 urtera begira, udalerrri osoaren energia planifikazioa jaso behar da, 2020 urtera arte garatuko diren jardura zehatzak definituz honako alor hauetan: energia eraginkortasuna, energia berriztagarriak, mugikortasun iraunkorra eta hondakinak, udalerrrian energia kontsumitzen duten arlo guztietan, industrian izan ezik; hau da, udal eraikinak, zerbitzu arloa, bizitegiak eta lehen arloa.

- IV. 2009ko otsailaren 9an sinatutako akordioaren arabera, Europar Batzordeak Euskadin ITUNAREN koordinatzaile EEE hautatu zuela.

EEERI esleitutako zeregin nagusiak, laburbilduta, hauexek dira: ITUNAREKIN bat egiten duten udalei laguntza teknikoa eta administratiboa ematea, hartutako konpromisoak betetze aldera.

- V. EEEK EAEKO udal guztientzako energia planifikazio estrategiatzat hartzen duela ITUNAK definitzen duen esparrua, udalek egin beharreko lanen betetze mailari dagokionez, epeak denontzat berberak izango ez badira ere. Izan ere, tokian



tokiko udalaren baliabide tekniko, ekonomiko eta pertsonalaren arabera, ezberdinak izango dira epeak.

**VI.** Horren ondorioz, EEEk udalekin batera aurrera eramango dituen lan-ildoak hauexek direla:

- a) Alkateen Ituna edo ITUNA
- b) Alkateen Itunerantz Zuzenduz (aurrerantzean ITUNERANTZ Zuzenduz)

**VII.** ITUNERANTZ Zuzenduz EEEk diseinatutako ekimen bat dela, udal energia planifikazioa egitea helburu duena, 2020 urteari begira.

Energia planifikazioak jarduera zehatzak definituko ditu energia kontsumitzen duten udalerriko alor guztietan, industrian izan ezik. Alor horiek hauexek dira: argiteria publikoa eta udal eraikinak, garraio alorra, zerbitzuak, bizitegiak eta lehen alorra.

**VIII.** Tokian tokiko udalaren ezaugarriak direla eta, ITUNAK proposatutako lan egutegi ezberdina eskatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalei zuzenduta dago ITUNERANTZ Zuzenduz.

**IX.** Beasaingo Udalak, gaur egungo energia eta ekonomia egoera kontuan hartuta, 2020. urteari begira, udal energia planifikazioa arloka definitzeko konpromisoa hartzen du, kontsumitzen duen energia kudeatu ahal izateko.

Hori dela eta, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea erabaki dute erakunde biek, jarraian azaltzen diren klausulen arabera.

## **KLAUSULAK**

### **1.) Helburua**

Hitzarmen honen helburua hauexek dira: Beasaingo Udalaren borondatea adieraztea ITUNERANTZ Zuzenduz ekimenarekin bat egiteko, eta EEEekin batera, 2020 urtera begirako udal planifikazioa diseinatzeke interesa erakustea.

Planifikazio horren barruan jarduera zehatzak definituko dira, udal energiaren kudeaketa hobetzeko, udalak eta EEEk lankidetzan eta elkarrekin adostuko dituzten alor eta gaietan. Nolanahi ere, planifikazio horrek, nagusiki, dokumentu honetako bigarren klausularen (Udalaren betebeharrak) lehen atalean ezartzen den ordena edo hurrenkera hartuko du kontuan.

### **2.) Udalaren betebeharrak**

**Lehena:** Udalak konpromisoa hartzen du energia kontsumitzen duten alorretan lan egiteko modu jarraituan. Alor horiek hauexek dira:

- Argiteria publikoa eta udal eraikinak
- Garraio alorra

- Zerbitzuak
- Bizitegiak
- Lehen alorra

Alor horietan egingo diren lanak, funtsean, energia eraginkortasuna, mugikortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeari begirako azterketetan oinarrituko dira.

Beharrezkoa ez bada ere, komenigarria izango litzateke adierazitako hurrenkera horretan jardutea.

**Bigarrena:** Urtero, gutxienez, EEEekin batera adostutako jardueretako bat gauzatu beharko du udalak, hitzarmen hau sinatzen den hurrengo urtetik kontatzen hasita.

### 3.) EEEren betebeharrak

**Lehena:** Aldeen artean definitutako helburuak lortzeko bideratzaile gisa jarduteko konpromisoa hartzen du EEEK, ITUNERANTZ Zuzenduz ekimena sinatuko duten udalei emango dien laguntza teknikoaren bitartez.

**Bigarrena:** Era berean, alde biek hitzartutako jarduerak eta proiektuak finantzatzeko bideak identifikatu eta bilatzeko bideratzaile gisa jarduteko konpromisoa hartzen du EEEK. Nolanahi ere, EEEK ez du inoiz proiektuen finantzaketa bermatuko.

### 4.) Lankidetzaren hitzarmenaren iraunaldia

Lankidetzaren hitzarmen hau bi (2) urte egongo da indarrean, sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, bi urte horiek igaro ondoren, hitzarmena automatikoki luzatuko da iraunaldi berarekin, aldeetako batek hitzarmena bertan behera uzteko eskatu ezean.

### 5.) Lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa

Lankidetzaren hitzarmen honen klausuletan eta baldintzetan gerta liteken edozein aldaketa alde bien berriazko adostasunarekin egin beharko da, eta aldaketarik balego, aldatutako klausula moduan idatziko litzateke jatorrizko dokumentuan erantsita.

### 6.) Lankidetzaren hitzarmenaren arduradunak. Jarraipen Batzordea

Hitzarmen hau behar bezala garatzeko eta bideratzeko Jarraipen Batzordea eratuko da. Jarraipen Batzordea bi aldeek izendatuko dituzten bi (2) teknikari arduradunek osatuko dute.

Alde horretatik, udalak konpromisoa hartzen du udal energia kudeatzaile izendatzeko, profil teknikoa izango duena eta lankidetzaren hitzarmen honetan

jasotzen diren jarduerak aurrera eramateko gaitasun era erabakimen nahikoarekin. Aldez aurretik, udalak hautatuko duen kudeatzaile hori EEEren oniritzia jaso beharko du.

Udal energia kudeatzaile aukeratuko den pertsonak bere zereginak alde batera utzi beharko balitu, hilabeteko (1) gehieneko epean ordezeko bat hautatu beharko litzateke.

Zeregin horietarako;

Udalaren aldetik, Jose Ignacio Aramendi Lazkano jauna, zerbitziburua, izango da lankidetzaren hitzarmenaren arduraduna, eta, beraz, "udal energia kudeatzaile" gisa arituko da.

EEEren aldetik, Iñaki García Martínez jauna izango da lankidetzaren hitzarmenaren arduraduna.

Jarraipen Batzordeak honako egiteko hauek izango ditu:

- a) Hitzarmen honen helburuan jasotzen diren jarduerak eta ekintzak guztiak garatzea, eta bereziki, alde biek definitutako jarduerari jarraipena egitea eta etengabeko balorazioa gauzatzea.
- b) Hitzarmenaren helburuetan eta beraietan islatzen diren inguruabar zehatzetan gerta litezkeen aldaketak aztertzea eta ebaluatzea, eta hala dagokionean, aldaketak proposatzea.
- c) Lankidetzaren hitzarmena interpretatzea eta hitzartutakoa betetzean edo interpretatzean izan litezkeen arazoak edo desadostasunak konpontzea.
- d) Alde bientzako interesgarriak izango diren informazio eta komunikazio orokor edo global guztiak behar bezala bideratzea. Nolanahi ere, izaera teknikoa izango duten komunikazioak proiektuen arduradunen artean bideratu daitezke. Halaber, informazioen konfidentzialtasuna bermatuko du.
- e) Hitzarmenaren helburuak betetzeko edo garatzeko beharrezkoa den beste edozein zeregin; beti ere, alde biek interesak kontuan hartuz.

Jarraipen Batzordeak, ohiko prozeduraz, sei hilabetean behin bilduko da, eta ohiz kanpoko prozeduraz, alde bietako batek hala eskatzen duenean.

## 7.) **Lankidetzaren hitzarmenaren iraungitzea**

Lankidetzaren hitzarmen honen iraungitzea honako arrazoi hauengatik gertatuko da:

1. Hitzarmenaren edozein klausula ez betetzeagatik
2. Hitzarmena amaitu edo betetzeagatik
3. Alde sinatzaile biek elkar hartzeagatik

Alde batek hartutako konpromisoren bat ez betetzeak ekarriko du beste aldeak eskubidea izatea bete dadin eskatzeko edo hitzarmen hau bertan behera uzteko.

Hitzarmena bertan behera geratuko balitz, alde biek zehaztuko lituzkete amaierako baldintzak, elkar hartuta.

## 8.) Izaera eta jurisdikzioa

Lankidetzaren hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta administrazio publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenei dagozkien ordenamendu juridiko eta administratiboaren arabera izango dira haren interpretazioa eta garapena.

Lankidetzaren hitzarmen honen garapenean edo gauzapenean sortu litezkeen interpretazio arazoak konponbidea alde bien adostasunarekin lortzen saiatuko dira; beti ere, amaierako baldintzak zehaztuz eta, hala dagokienez, kalte-ordaina emanez.

Horrela ez balitz, edo ados jarriko ez balira, aferak edo arazoak konpontzeko auzi administratiboaren epaitegietara jo beharko dute.

Adierazi denarekiko adostasunaren lekuko eta jasota gera dadin, bi aldeek lankidetzaren hitzarmen hau bi aletan sinatzen dute, hasieran jakinarazitako toki eta egunean.”

**8.- TAORI BURUZKO ORDENANTZA.** TAORI buruzko ordenantzaren aldaketari hasierako onospena ematea.

Alkate jaunak 2014ko ekainaren 16ko antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Trafiko eta Aparkamendu Ordenantzaren Aldaketa.

### AURREKARIAK

Araututako aparkalekuen Udal Zerbitzuaren Ordenantza onartu eta behin zerbitzua martxan jarri ondoren, ikusi da ordenantza aldatzen duten doikuntza batzuek egitea beharrezkoa dela.

Eta beraz, Udal Antolakuntza Batzorde honek, Udaltzaingoak eginiko txostena ikusirik, eta beraz aztertu ondoren, egiten du ondorengo:

### PROPOSAMEN AKORDIOA

Beasaingo Udaleko Trafiko eta Aparkamendu Ordenantza aldatzea, 2013-12-05an udalbatzan behin betikoz onartu zena eta 2013-12-13ko 237 zk. d. GAOn argitaratu zena.

Ordenantzan azaldu beharreko proposatutako aldaketak ondoren letra lodiz idatzita aipatzen dena da:

6.- Artikulua:

Sektore Marroia: Erauskin plazan kokatuta dauden aparkalekuak **eta Bernedoenean ( 40 aparkaleku Osasun Zentroaren inguruan daudenak).**

8.- Artikulua:

Sektore Urdina: Gehienez 4 ordu. Eskatutako denbora igaro ondoren, ibilgailua tokiz aldatu beharko da **eta ezingo da aparkatu sektore honetan ondorengo 2 orduetan.**

Sektore Berdea: Gehienez egun erdia, hau da, goiz osoa edo arratsalde osoa. Eskatutako denbora igaro ondoren, ibilgailua tokiz aldatu beharko da **eta ezingo da aparkatu sektore honetan ondorengo 2 orduetan.**

Egoiliarren txartela duten ibilgailuek gune osoan aparkatu ahal izango dute denbora-mugarik gabe sektore marroian (Erauskin plaza) izan ezik, horretarako ezarritako kuota ordainduta.

**Salbuespenez, sektore marroian (Erauskin Plaza) aparkatu ahal izango dute denbora mugarik gabe, Erauskin Kalea, 2ko egoiliarrek, beti ere egoiliarren txartela ikusgarri badute.**

9.- Artikulua:

Kale-zerrenda: Zaldizurreta (1etik 19ra), Esteban Lasa, Martina Maiz, Igartetxe, Bista Alai (10etik 16ra eta 9tik 19ra), Andre Mari (1etik 13ra), Erauskin (2-4 eta 7), San Inazio, Urbialde plaza, Oriamendi (4tik 30era eta 3tik 29ra), Nekolalde (2tik 24ra eta 7tik 27ra), Garmendia Otaola 1-2-3, Barrendain plaza, Nafarroa etorbidea (1etik 25era), Kale Nagusia, J.M.Iturriotz (1etik 15A-15Bra eta 2tik 16ra), Bideluze plaza, Jose Martin Arana kalea **eta Zazpitarrieta kalea.**

11.- Artikulua:

Kudeaketarako sistemak **14. artikuluan a, b eta c** ataletan jasotako arau-hausteen salaketak berehala ordaindu ahal izateko aukera ematen du, beti ere ordaindutako denbora amaitu zenetik bi egun igaro baino lehenago ordaintzen bada eta zerbitzuek ibilgailua erretiratzeko edo ibilgetzeko neurririk hartu ez badute. Parkimetroan ordaindu beharreko kopurua arau-haustearentzako ezarritako zigorraren bostena izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Alkatea jaunak (BILDU): “Ordenantza onartu zenean esan zen egunez egun joan beharko ginela aztertzen TAOk dituen behar berriak. Azterketa bat egin ondoren, aipatu den moduan ordenantzaren aldaketa proposatzen dugu. Osasun zentroko aparkalekua lehen betetzen zena baino gehiago betetzen da eta hor behar bat sortu da osasun zentrorra joan nahi dutenentzat. Horregatik 40 plaza aurreikusten dira eremu horretan sektore marroikoak. Horrezaz gain Erauskin kalean 2ko egoiliarrek arratsaldean aparkatzeko aukera izango dute egoiliar txartelarekin. Kale zerrendei dagokionean, Zazpiburrieta kalea bere osotasunean txertatzen da egoiliar txartela erabiltzeko aukerarekin. Sektore barruan denbora igaro ondoren, ibilgailua tokiz aldatu egin beharko da eta ezin izango da sektore berdinetara bueltatu bi ordutan.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “En la comisión nos posicionamos a favor de modificar la ordenanza y en este Pleno también. Eramos todos conscientes cuando tomamos la decisión de poner la OTA, que una implantación de este tipo es casi imposible acertar al 100% desde el inicio. Tienen que surgir situaciones de orden para regular el sistema. Me alegro de que el departamento de policía municipal con su jefe a la cabeza haya sido tan ágil en detectar en mes y pico, estas situaciones y buscar posibles soluciones. Irán surgiendo temas, pero a mi entender no basta con habilitar la zona de Zazpiburrieta. Se está generando un serio problema en el barrio de la porteria. En su momento se habló de esto y dijimos de esperar a ver cómo evolucionaba. Pido al gobierno municipal que en el tiempo más breve posible sea capaz de traer una propuesta para solucionar ese problema. Estamos de acuerdo con estas modificaciones.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Yo creo que la zona de Zazpiburrieta no se habilita. Lo que se hace es dar txartelas de residente a los vecinos de Zazpiburrieta, entiendo que para que puedan acceder al parking de la plaza de Gipuzkoa. Gu abstenitu egingo gara. Aldaketa batzuk ondo ikusten ditugu eta beste batzuk, aldiz zalantzak sortzen dizkigute. Guri iruditzen zaigu hilerro ezin ditugula aldaketak planteatu. Tokian tokikoari irteera ematen zaionean, behar bada gainontzeko herrikoei nahastu egiten diegu. Guri iruditzen zaigu denbora bat behar duela jendeak ohiturak aldatzeko. Egunero ikusten dugu Beasainen bizi garenok autoari gutxiago eskua botatzen diogula. Hilabete ez da nahikoa ikusteko jendearen ohiturak nora doazen eta beharrak benetan zeintzuk diren. Aurrekoak ere ez genuen aurka botatu guk beste modu batera egingo genuen

haitzakepean eta orain ere ez dugu aurka bozkatuko, baizik eta abstenitu egingo gara, OTAren alde gaudelako.”

Alkatea jaunak (BILDU): “hilabetero aldaketak ekartzea ez da egokiena eta denbora bat behar da gauzak aztertu eta bere bideragarritasuna zenbaiterainokoa izango den ikusteko. Hala ere, gaur ekarri ditugun aldaketak beharrezkoak direla iruditzen zaigu, adibidez osasun zentroari dagokion aldaketa gizarte-ongizatearekin zer ikusia du. Porterian dagoen arazoari ere irtenbidea bilatu nahi zaio eta horretarako CAFekin bilera bat egin nahi dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (EAJ, H1, PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** TAOko ordenantzaren aldaketari hasierako onespina ematea.

**Bigarren.** Ordenantzaren aldaketa jendaurrean jartzea, hogeita hamar lanegunetan erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada inolako erreklamaziorik aurkezten, TAOko ordenantzaren aldaketa behin betiko onartuta geratuko da.

**9.- DIRULAGUNTZAK.** Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei dirulaguntzak emateko oinarriak.

Alkate jaunak Kultura eta Euskera batzordearen proposamenaren berri eman du:

“2013ko uztailaren 23an argitaratu ziren diru-laguntzen oinarrietako 9. klausulan jasotzen da diru-laguntzen ordainketa bi alditan egingo dela, udako ikastaroen kasuan, abenduan. Horrela egin zen iaz, baina 7. klausulak dioena ezin izan zen bete, izan ere, irailean baldintzak betetzen zituztenekin xahutu zen diru guztia eta udan ikasten ibili zirenentzako, hau da, abenduko ordainketak egiteko ez zen nahiko diru gelditu.

7. klausulak, honela dio: “*diru-laguntzen finantzaketa. Oinarri hauen xede diren diru-laguntzetarako udalak urte horretarako aurrekontuan finkatutako kopurua*

*erabiliko da. Aipatu diru kopurua diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean banatuko da.”*

Hori dela eta batzordean ondorengo erabaki da: 7. klausula osoa kentzea eta berriro argitaratzea GAOn diru-laguntzen oinarriak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei dirulaguntzak emateko oinarrien aldaketari hasierako onespena ematea.

**Bigarren.** Jendaurrean jartzea hogeita hamar laneguneko epean eta epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten, oinarriak behin betiko onartuta geratuko dira.

## **10.- MOZIOAK:**

**a.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa, Euskal Kutxen etorkizunari buruzkoa.**

Alkatea jaunak, ondorengo mozioa irakurri du, euskal kutxen etorkizunari buruz:

“Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAeko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion –eta ondorioz KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantzaz betetakoa daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandun Of Understansing-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa



nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.

Guzti honegatik, EHBilduko Udal Taldeak honako akordio puntuak aurkezten ditu BEASAINGO Udaleko Udaltzarak eztabaidatu eta onartu ditzan:

1- BEASAINGO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarari eta KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jarduerara gure lurraldeko herritar zein finantza beharrianetara zuzendu dezatela eskatzen die.

2- BEASAINGO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAKo Gobernu Organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkaritza proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza arloko beste entitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.

3- BEASAINGO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, KUTXAKo langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.

4- BEASAINGO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die,

KUTXAk bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %32koa izaten jarraituko duelarik.

5- BEASAINGO Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.

6- BEASAINGO Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAEko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.

7- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusiei, Donostiako Udalari, KUTXAKo Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, KUTXAKo Lehendakariari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politiko guztiei helaraziko die.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Julio Herreros jaunak, PPko ordezkariak ondorengo esan du: “las cajas de KUTXABANK son entidades de crédito privadas por lo que no se puede privatizar lo que ya es privado. Una entidad más grande es una entidad solvente y competitiva. Algo que nos interesa a todos. Una entidad más grande es más solvente y permite garantizar las condiciones laborables del empleo. El proceso de entrada de capital privado a KUTXABANAK, debe servir para garantizar una financiación razonable para la obra social, así como para mantener el arraigo en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Sin capital privado, las cajas tendrían que dotarse de un fondo de reserva que le impediría tener recursos para la obra social, que es la señal de identidad de KUTXA. El capital privado da la posibilidad de calibrar en caso de necesidad sin que se comprometa la obra social. El sector financiero es un sector regulable y por ello es importante no sólo un cumplimiento estricto de la ley, sino el vigilar que ésta se cumpla. La ley nos adapta y nos permite ser viables en los nuevos escenarios financieros. No se puede meter miedo a la sociedad ni a los clientes en asuntos tan delicados como este si tenemos en cuenta la situación económica de nuestras familias.”

b.- EAJ eta PSE-EE/PSOEK aurkeztutako mozioa, KUTXAri buruz.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) ondorengo mozioa irakurri du:

“1.- Udalbatzak bere aitortza erakusten du ehun urte baino gehiagoko historian zehar Kutxak egindako lanagatik, bere gizarte lanagatik, bere finantza jardueragatik eta gure Lurraldearen garpen ekonomiko eta sozialean izandako inplikazioagatik, finantza eragile nagusi moduan.

2.- Udalbatza, .Espainiako finantza sisteman gertatzen ari den berregituratzearen aurrean, Kutxa banku fundazio bihurtzearen alde agertzen da, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legea betetzeko, eta, -alde horretatik, gobernu organoei eskatzen die beharrezko izapideei ekitea, bihurtze hori Legeak xedaturiko epe eta terminoen arabera gertatzeko.

3.- Udalbatzak Eusko Jauritaritari eskatzen dio aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legeak ezarritakoa betez, aurrezki kutxei buruzko euskal legedia egoki dezala eta banku fundazioei buruzko lege propioa gara dezala, legegintzako izapidetzeak ahalbidetzen duen ahalik eta azkarren eta, nolana ere, ekitaldi honetan:

4.- Udalbatzak. Kutxaren gizarte jardueraren etorkizuna defendatzen du, bai eta Lurraldearen garpen ekonomiko eta sozialarekiko duen konpromisoaren jarraipena, Kutxako edo banku Fundazioko gobernu organoetan izango duen ordezkartzaren bidez, eta Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio gauza bera egin dezala.

5.- Udalbatzak Kutxako gobernu organoei eskatzen die aurrezki kutxa banku fundazio bihurtzeko prozesuan gardentasunez jokatzeko, indarrean dagoen legedia estu betez eta banku fundazioaren patronatuan Gipuzkoako gizartearen gehiengoa eta aniztasuna errespetuz ordezkatuta egoteko hastapenarekin bat.

6.- Udalbatzak adierazten du Kutxaren eginkizunak etorkizunean ere izan behar duela duen ondarea kudeatzea lurralderekiko konpromisoa irizpide erabilita, ekonomi eta gizarte garapena sustatuz, aipatu ondarearen etekinak Gizarte Ekintzara bideratuta, lehentasunzkat izanik aipatu ondarea babestu eta handitzea, eta lurralderekiko konpromisoaren erakusgarri Kutxabanken kontrola Euskadin egoten laguntzen duela.”

BILDUK aurkeztutako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU, ARALAR).

Aurkako botoak: 9 (EAJ, PSE-EE/PSOE, PP)

Abstentzioak: 0

Aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez, ez da onartu mozioa.

Jarraian, EAJ eta PSE-EE/PSOEek aurkeztutako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR).

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da EAJ eta PSE-EE/PSOEek aurkeztutako mozioa.

## **11.- IRAUNKORTASUN FINANTZARIOARI BURUZKO KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

Alkatea jaunak ezagutzera eman du, kontuhartzaileak emandako txostena, iraunkortasun finantziarioari buruz:

### **“AURREKARIAK**

1.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21.1 artikulua ondorengo xedatzen du: Aurrekontu-egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua bete ezean, administrazio urratzaileak urtebeteko epean haiek bete ahal izatea bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du.

2.- Gipuzkoako Forua Aldundiak, 1/2013 Foru Arauak emandako eskumena erabiliz, “2014rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea” onartu du. Araudi honen 1 eta 3 erregeletan xedatzen denez, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helarazi beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

Aipatutako xedapenetan adierazitakoa betez, igortzen da ondorengo

TXOSTENA

1.-2014 ekitaldirako hasierako aurrekontua aurrekontuaren egonkortasun eta finantzen iraunkortasunaren helburuak betaz onartu zen baina gastu arauaren helburuak urratuz onartua izan zen.

Helburuaren urraketaren ondorioz, aipatutako 2014 urterako Jarraibideetan” xedatutakoaren arabera, Udalbatzari, Kontuhartzaileak sinatutako txostenaren berri eman baitzizaion, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuz, ondorengo baldintza guztiak betetzen direnez:

- 2013ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.

- 2014rako defizit eta zor helburuak betetzea.

2.- 2013ko aurrekontuaren likidazioaren expedienteak aurrekontuaren egonkortasuna, finantzen iraunkortasuna eta gastu ez finantzarioaren muga helburuak betetzen ditu.

Likidazio horretatik 6.782.270,10 euroko kopuruko diruzaintzako gerakin likidoa ondorioztatzen da.

3.- Gaur egun 1.239.641,74 euroko kreditu txertaketa motako 3 expediente eta 720.960,15 euroko guztizko kreditu gehigarrien 6 expediente formalizatu dira, beste kreditu batzuen bajaz gain, 1.912.116,89 euroko diruzaintzako gerakin likidioarekin finantzatuak izan direnak.

Kreditu gehikuntza horien ondorioz aurrekontu egonkortasunaren eta gastu mugaren helburuak urratuta gertatu dira, baina diruzaintzako gerakinaren erabilpenaren ondoriozko urraketa denez, ez da beharrezkoa plan ekonomiko-finantzarioa egitea, aipatutako Jarraibidearen 1 eta 3 erregelak xedatutakoaren babespean, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatuko duen Kontuhartzaitzako txostenarekin ordezkatzeko baita.

4.- Aipatutako kreditu gehikuntzaren guztizko kopurutik, 1.778.194,76 euro **inbertsio gastuak** dira, hau da, gastu ez errepikariak eta gastu arruntaren gehikuntza nabarmenik ondorioztatuko ez dutenak ere, eta beraz, Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen ez dutenak.

5.- Aipatutako kreditu aldaketak barne hartzen dituen aurrekontu **bateratuaren Aurrezki garbia**, positiboa da **2.232.241,87 euroko** kopuruan. (Sarrera arruntak: 14.962.426,09€, Gastu arruntak: 12.210.184,22€, zorraren amortizazio: 520.000,00€).

Beraz, txosten honek ondorengoa adierazten du, alegia, egindako kreditu aldaketen ondorioz AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUA ETA

GASTU MUGA URRATUTA gertatu arren, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da Beasaingo Udalaren EGOERA FINANTZARIOA IRAUNKORRA dela eta aipatutako urraketen ondorioz ez dela konprometituta gertatzen.”

## **12.- ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Ezagutzera eman dira, 2014ko martxoaren 31tik 2014ko ekainaren 14a bitartean emandako Ebazpenak.

## **13.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “alde batetik kexa bat azaldu nahi nuke eta bestetik 2013ko likidazioa pasatu zaigunez, likidazio horren gure ikuspegia azaldu nahi nuke eta likidazio horren ondorioz, proposamen pare bat ekartzen ditut.

KEXA. En alguna comisión, en relación al polideportivo se ha comentado que los usuarios de las autocaravanas van a tener un 50% de rebaja en la entrada. No sabemos cual es la razón porque no ha pasado por ninguna comisión, y no estamos de acuerdo porque creemos que se generan diferencias con vecinos que puedan estar en situación precaria. Además este año la posibilidad de poder coger entradas por parte de los socios a un 50% para atraer a más gente, se han suprimido.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Esan autokarabanen %50eko beherapen hori, Beasaingo turismoan dagoela oinarrituta. Esan behar da Beasaingo edozein hoteletan lo egiten duten pertsonak, hotelean %50 horren beherapena ere eskaintzen zaila. Hori oinarri modura hartuta, autokarabanetan lo egiten dutenei ere, eskaintza hori egitea pentsatu zen.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik uste dut diferentzi bat badagoela. Autokarabana erabiltzen duenak zorua ez du ordaintzen, libre geratzen da eta hango zerbitzuak ere libre ditu. Hotelera datorrenarekiko diferentziak garbiak dira. Profila erabat ezberdina da eta herritar soilekin konparatu daiteke.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Hotelean ez kontsumituta ere, iruditzen zaigu turismoa sustatzeko modu bat dela eta inguruko lekuetan ere gastatzen dutela. Nahiz eta zorua ez erabili, inguruko komertzio, denda, taberna eta abarretan inbertitzeko aukera dute.”

LIKIDAZIOA. Likidazioa pasatu zaigu eta ezer baino lehen esan Udalaren kontuak dituen osasun ona azpimagarria dela, baina aipatu nahi

nituzke 2013. urteko hainbat errealitate eta gure ustez aukera ematen dutenak proposamenak egiteko dauden gerakinekin. Hirigintzan, adibidez obra batzuk atzerapena izateaz gain orokorrean, esleitzeko bajak, batzordeetan azpimarratu dugun bezala, kezka sortzen dizkigutela. Horrek azpiko lan bat eskatzen du berdin ez jarraitzeko, zeren eta garbi dagoena da edo proiektuak egiterakoan akatsa dagoela edo bestela %50eko bajak obraren kalitatean izango duela eragina. 2013ko inbertsio errealean exekuzioa, hirigintza %59a izan da eta horrek esan nahi du 2013. urteari dagozkien obrak 2014. urtera pasatu direla edo baja horiei esker %22a ez dela gastatuko. Ongizatean esan, etxebizitza babestuari dagokiona, etxez etxeko asistentzia, eguneko zentrorako aurreikusita zeuden inbertsioak ez direla osotasunean gauzatu eta horrek ere gerakin batzuk uzten ditu. Euskerari dagozkien diru-laguntzak ere ez dira osotasunean burutu. Astigarretako uraren emaria eta depositua Garingo ur zikinen fosa, ere ez. Publizitate kontusaila laukoiztu egin da. Orokorrean diru-sarreretan aurreikusita zegoenaz gain eta aurreko urteekin alderatuta, etxebizitza-tasetan %4,5 gehiago jaso da. Horrek ea 100.000 € kopurua esan nahi du. Ibilgailuei dagokionean %2,2a gehiago jaso dugu tasetan (ea 20.000 € gehiago). Zaborren tasekin ere %25a igo da (32.000 €). Isunei dagokienei ere 60.000 € gehiago eta azkenik, Foru Fondoa %3a igo da eta horrek suposatzen du 209.827 € gehiago jaso ditugula. Gastuak gutxitu egin dira eta hori dela eta bi proposamen egiten ditugu: batetik, remanenteari tiraka 30.000 €ko kontusaila sortzea eskatzen dugu, etxebizitzak birgaitu nahi dituztenei emateko. Eusko Jaurlaritzak martxan duen 2013tik 2016ra Plan Renovera apuntatzen direnei eta onartzen zainei, guk beste hainbeste, diru kopuru berdina ematea eskatzen dugu. Bi helburuekin planteatzen dugu hau: alde batetik, diru-sarrera baxuenak dituen familiei aukera emateko bere etxebizitzak berritzeko eta beste alde batetik lana emateko eraikuntzan lanean ari diren enpresei, lan mundua ere suspertzeko.

Bigarren proposamena da bozkatu dugun mozioaren inguruan. Gaur egun KUTXABANKek duen %32tik behartu dezake KUTXA plan finantziero batean sartzea. Plan finantziero horretan sartzeak KUTXari suposatuko lioke %50a baino puntu bat beheragoko akzioak edukitzea. Hainbeste aipatzen den pribatizazio hori eman ez dadin guk proposatzen duguna da %32tik %39ra doan balizko kopuru hori, Udalek eta Foru Aldundiak bere gain hartzea. Horrek esan nahiko luke Beasainek bere gain hartu beharko lukeela akzioen ordainketa 14.000 biztanleei dagokien proportzioan, esku publikotan egon daitezen. Beraz, guk proposatzen duguna da, hasieran behintzat kontusail bat irekitzea, 100.000 €koa balizko ekarpen hori egin behar izan ezkeru.”

Alkate jaunak (BILDU): “Egindako proposamenak aztertuko dira eta eskatu beharreko txostenak ere eskatuko dira. Ez dugu eragozpenik egongo direnik. KUTXAkoak zalantza sortzen digu. Gaur egun publikoa dena erosteko zalantza sortzen digu, baina aztertzeke gaia da. Iazko urteari egindako errepassoaren inguruan, zuk aipatu dituzu egindakoak, ez egindakoak eta izandako gorabeherak. Esan bajen aurrean ezer gutxi egitea dagoela. Obrak

ahal den egokien saiatzen garela eta beste kopuruetan %2a, %5a oso zailak direla zehazten. Beti horrela jokatu da, sarrerak modu zorrotzean aurreikusten dira eta beti beheraka. lazko gerakin hori, gaur bezala aurkeztu den kreditu aldaketarako erabiltzen dela. Aurten gastatu egin beharko dira, besteak beste, Oriamendi eta Barandiaran egin nahi diren obrentzako. laz egin ez diren obrak, jadanik amaitzeaz daude, hala nola, Barandiaran parkea eta bidegorriko obrak.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “No es ninguna crítica. Yo lo que quiero es argumentar que hay dinero para hacer propuestas. Es muy difícil ajustar al 2% y tampoco pretendo eso. Por eso he dicho que hay que reconocer que la salud del Ayuntamiento es muy buena. Lo único que intento es justificar de dónde se puede sacar el dinero. Yo creo que todos somos conscientes de la problemática que supone el dar al más bajo. Yo creo que habría que darle vueltas porque la realidad nos está llevando a situaciones que las estáis sufriendo. Creo que hay que hacer hincapié en estas cosas para intentar solucionar. Hay que trabajar más en ese tema para poder llegar a acuerdos.”

Alkate jaunak (BILDU): “Yo no he dicho que sea ninguna crítica. En el último pliego que se ha aprobado se valora casi el 50% la memoria.”

Idoia Baztarrika (BILDU): “Ongizate aipatu duzu eta esan nahi nuke kanpoko faktore asko daudela. Zaila da aurreikustea zenbakiak zeintzuk izan behar diren. Kontusailak zabalak aurreikusten ditugu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Horregatik esaten dut ez kritika modura hartzeko. Diru bat dago eta noski, zuek kudeatzen baduzue, batez ere etxez etxe laguntzekin, edo b, edo bezero gutxiago dago edo behar gutxiago. Garbi dago faktore asko daudela eta lan lantza dagoela hor atzean. Errealitatea da diru gerakina dagoela eta kasu horietan gainera gastatzen ez bada larriagoa da, diru hori bueltatu egin behar delako.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Euskerari dagokionean esan, aurrekontuak zorrotasun batekin egitea oso zaila dela. lazko urtean mila eta piko euro geratu ziren soberakin modura eta aurtengo urtean sartu dira. Zergatik sobratu zen diru hau?. Horregatik aldatu dugu gaur aldatu duguna. Euskara ikasteko diru-laguntzak ez dira egon. Eskariak baino diru gehiago aurreikusi zen.”

Malu Valles andreak (EAJ): “El parque de Barandiaran ha quedado muy bien, pero he recibido una serie de comentarios, que son más bien aportaciones y que las quiero trasladar y es que la cantidad de bancos instalados es escasa. A mi entender habría que instalar más, tanto en la zona donde ya están como en la zona cubierta porque hay mucha distancia desde donde están los bancos hasta donde están los niños. También imagino que estará previsto pintar la zona de atrás.”



Alkatea jaunak (BILDU): “Al parque de Barandiaran hay que darle vueltas porque queda un espacio amplio y hay diferentes propuestas, como por ejemplo, elementos como los que se han puesto en el parque del Paseo del Oria, aparcamientos, bancos, etc.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko zortziak eta hamabost minutuetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

